

egunekoa

Susan Lee

(Amnesty Internationaleko Amerika Programaren zuzendaria)

Uriberen dilema: irmotasuna giza eskubideak babesteko edo hutsaltzeko?

Alvaro Uribe Velezek, abuztuaren 7an Kolonbiako Errepublikako Presidentetza hartzean, izugarriko gobernu ardura hartu du, herria amildegiaren ertzean baitago, ia lau hamarralditako gatazka armatuak hondatuta utzi duelako, eta indarkeria politikoa etengabe handitzea bereizgarri delako. Herrian, bi milioitik gora lagunek alde egin behar izan dute beren etxeetatik gerraren ondorioz, eta gatazkak egunero 20 hildakotik gora eragiten ditu; gehienak borrokatik kanpo hildako herritar zibilak izaten dira.

Gainera, segurtasun indarrek, beren aliatu gisa diharduten talde paramilitarren bitartez, biztanleen funtsezko eskubideak sistematikoki urratzen jarraitzen dute, armetan jarritako taldeen kontrako borrokaren izenean, eta azken horiek, berriz, ezin konta ahal herritar zibil beldurrazten, bahitzen eta hiltzen segitzen dute.

Herritarrek, izan ere, eragile armatuen mende daude, eta norberaren zein beste eskubideak aldeztua izugarri ausartzea da, jazarpenarekin, erbestearekin eta, askotan, heriotzarekin ordaintzen delako, eta honako hauek horren froga dira: 140 sindikalista baino gehiago hil dituzte eta desagertu dira 2001. urtean, eta epe berean etengabeak izan dira giza eskubideen aldeleak jasandako mehatxuak eta erasoak, hala nola haien artean gertatutako homizidioak.

Egoera hain zaila izanik, Uribek aukera erraza dauka: azkenean beharrezko neurriak hartzea herriko giza eskubideen egoera gero eta larriari aurre egiteko; edo segurtasunaren gaineko ikuspegi militarri lehentasuna ematen dioten politikak erabiltzea, Kolonbiako gizarte sektore zabalaren funtsezko eskubideen kaltetan. Halaber, onartzea Estatuari giza eskubideen urraketan lehen bezala orain ere dagokion erantzukizuna, eta eskubide-hauste guztiak argitzea ikerketa serio eta sakonak eginez; edo Kolonbiako aurreko gobernuen ohiko jarrierari eustea, hau da, etengabe ahalegintzea ardura hori ezkutatzeko, eta urraketak

salatzera ausartzen direnen kontra jotzea.

Lehen bidea aukeratuz gero, Kolonbiako presidentek Nazio Batuen eta giza eskubideen esparruan diharduten herriko bertako zein nazioarteko erakunde askoren gomendioak har ditzake gogoan. Behin eta berrizko gomendio

horietan funtsezko neurri batzuk jasotzen dira, honako helburu hauekin: egungo zigorgabetasuna desagerraraztea, giza eskubideen eta nazioarteko giza zuzenbidearen urraketak ezkutatzeko; talde paramilitarrak borrokatzea eta bakar-tzea, oraindik ere indar

publikoaren laguntza duten arren; eta babes eraginkorra ematea giza eskubideen aldeleei, hala nola Kolonbiako gainerako gizarte sektore ahulei.

Bide horretan, Alvaro Uribek irmotasunez jokatu beharko luke zigorgabetasun orokortua bermatu duten mekanismoak indargabetzeko; izan ere, indar armatuek, talde paramilitarrek –zeinek askotan aurrekoekin elkar hartuta edo haien laguntzarekin baitihardute– edo gerrilla taldeek milaka egindako bortxaketen gehien-gehienak aipatu zigorgabetasun horri esker gauzatu dira. Mekanismoak, gainera, sendotu egin dira, Kolonbiako hurrenez hurrengo adminis-

trazioek batere borondaterik ez dutelako izan arduradunak identifikatu eta auzipetzeko, eta, ondorioz, giro egokia sortu da gehiegikeria gehiago egiteko biztanle babesgabeen aurka.

Eta, hain zuzen ere, presidente berriak lehentasun nagusi bat izan beharko luke: herritar zibilak babestea, batez ere gatazka armatuaren eta indarkeria politikoaren ondorioak gehien jasaten dituzten sektoreak, hala nola, besteak beste, nekazarien, indigenen eta afrokolonbiarren komunitateak, sindikalistak, udal funtzionarioak, kazetariak eta giza eskubideen aldeleak.

Izan ere, Uribek behin eta berriz esan du segurtasuna izango dela bere jardun politikoaren oinarria. Hala ere, bizitzeko eskubidea, osotasun fisikorako eskubidea, gerran nahastuta ez egoteko eskubidea eta gisako gainerako funtsezko eskubideak guztiz indarrean egotea bermatzeko beharrezko urratsak ez egitera, segurtasuna lortzeko presidentearen asmoak ameskeria hutsa baino ez dira izango.

Haren programan ikusitakoaren arabera, guztiz erreala da arrisku hori, inondik ere ez baitu ematen presidentek giza eskubideen bidea hautatuko duenik, kostarik kosta militarizatzea eta gogortasuna baizik.

Indar armatuak babesteko informazioa milizia bat sortzeko asmoa du Uribek, milioi bat kidekoa, eta horrek argi uzten du haren estrategiak, zibilak gatazkatik babestu beharrean, borroketan haien esku-hartzea areagotzea aurreikusten duela. Proiektu horrek bi arrisku handi ditu Kolonbiako gizartearentzat. Alde batetik, herritarren segurtasuna kolokan jar dezake, eta bi aldean errepresalien jomuga izateko arriskuan. Bestetik, paramilitarismoa sustatzeko arriskua dakar; izan ere, paramilitarismoa hirurogeiko urteetan antzeko egitura zibiko-militarrak sortzeko bidea eman zuten legeak onartzearen ondorioz sortu zen.

Adibideok frogatzen duten bezala, argi dago Uribek iragarritako politika askotatik ondorioztatzen den mezua:

giza eskubideak ez dira lehentasunezkoak izango bere gobernuarentzat, eta, gainera, segurtasunaren izenean haiek bazter-tzea eman beharrek ordain onargarria izango da. Baina, politika horiek, azkenean, aurreikus daitekeen bezala, giza

eskubideen egungo egoera dramatiko oraindik gehiago larritzen badute, eta herritarrek gatazkan oraindik gehiago nahasten badituzte, eta ahul eta babesik gabe uzten, Uribek zein segurtasun eskain diezaike bere herrikideei?

Erredakzioan itzulia

zutabea

Josu Lartategi

Txakurrez (2)

Zergatik aipatzen ditudan hainbestetan txakurrak, horixe galdetu zidan adiskide batek. Hasieran ez nekien zertara zetorren komentario hori, alegia, ez nintzen egiten ei nuen horretaz konturatzeko. Gero, baina, pentsatzen jarririk, arrazoia zein den badakidala uste dut. Eta traumatizatuta nagoela uste dut. Horixe ateratu ondorio gisa.

Txakurren aipua hainbestetan egitearen arrazoia zera izan liteke, txakurrei eginiko krudelkeria izugarriak ikusi ditudala, bortizkeria barkaezinak, ni nintzen ume koxkorra bizitza osorako markatuta uzteko moduko basakeriak, gizatasunik gabeko ekintza lazgarriak.

Horrenbesteko izan al zen bai?

Bai, sinpleki, labur eta monosilabikoki. Bai.

Oraindik min egiten dit ume denborako une horiek gogoratzea, baina egin egiten dut sarri, eta ez dakit ondo arazoa zein zen, nik larregi sentitzen nuela ala besteek gutxiegi.

Soltxu esaten genion spanniel bretoi graxoxo bati. Antza, ehizan eroan eta lehen-lehenengo egunetik markatu zuten, galeper eta eperrei kasurik egiten ez zela. Biharamunean saguak hiltzeko pozoina ipini zioten bere betiko ontzian. Halaxe hil zen... hil zuten. Beste bat Jai zen. Horri zuzen-zuzen eman zizkieten tiroak, ibilian zihoala. Arrazoia? Ba lehengo berbera. Arte oker baten gerizpetan etzan zen, eta bertan hil. Zuri pointer polita zen, baina usainik gabea, antza. Lanrober bati lotu eta arrastaka eraman zuten hainbat kilometrotan barrena. Oihuka. Txakurrak ezagun dituenak egokiro imajinatuko ditu Zuri koittaduaren min oihuak. Haren gorputzaren trazak azaldu beharrik ere ez dago. Zuritxu brako bat zen, eder-ederra, nik hazitakoa, edo nirekin batera hobe esanda, gainontzeko guztiak bezala. Egun batean zera baino ez zidaten esan, galdu egin zela, bilatu bai baina ez zutela topatu.

Halakoak bizitu ditut. Halako gizaki normalekin hazitakoa naiz. Horratx trauma.

esaldiak

«Irailaren 11z geroztik, AEBek beren gain hartu dute globalizazioaren adar armatua izatearen funtzioa»

IGNACIO RAMONET

(Le Monde Diplomatique-ko zuzendaria)

«Afrikan eguneroko bizitza berriz jaiotzea bezala da; beti haur bat zara, ezerezetik abiatu behar duzu»

ESTEVE GRAU

(Biologoa)

«Gaur egun, Mendebaldean eta herrialde neoliberaletan gobernuak eurek erosten dituzte intelektualak»

MANOLO GARCIA

(Abeslaria eta konposatzailea)